

TXIN
PART

70

Etorkizuneko lihoa ehuntzen

2019

URTARRILA / OTSAILA / MARTXOA

URTARRILAK 19-20

Iraupen eskiko ikastaroa
eta raketekin txangoa



URTARRILAK 27

Pirritx, Porrotx eta
Marimototsen ikuskizuna
Elorsoro

OTSAILAK 4

Santa Ageda bezpera



OTSAILAK 22-23-24

Burrumba eta ihoteak

MARTXOAK 1

Inauteriak



Berria	4
Alexia	5
Elkarmaker	6
Haur Hezkuntzako proiektua	8
Otorduak	10
Egokitzapena	11
Bekak	12
Gurasoak partaide	13
Urmendi Haur Eskola	14
Hatzak bete lan	15
Neguko solstizioko ospakizunak	19
Eskolaz kanpokoak	38
Ikastolako taldea	40
Laburrak	40

ARGITARATZAILEA

Haurtzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
943 49 16 59
haurtzaro@ikastola.eus
LG: SS-129/2001

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA
BATUTA****INPRIMAKETA
ANTZA**

Paper birziklatuan inprimatua

Kaixo denoi: hemen gauzkazue 18-19 ikasturteko Txinpart aldizkariaren lehenengo alearekin. Seguruenik, bati baino gehiagori luze egingo zitzaien itxaronaldia, orain arte Gabonetako oporraldiaren aurretik jasotzen zenutelako lehenengo ale hau, eta oraingoan, aldiz, oporren ondorengo egunetara atzeratu dugulako. Hausnarketa saio baten ondoren, eta urtean bi ale argitaratzen ditugunez, egoki ikusi dugu argitaratze tarteak berdintzea.

Oraingoan ere, Haurtzaro Ikastola eta bertako komunitatearen inguruko eduki oso interesgarriekin gatoz. Hasteko, lehendakari berriaren lehenengo adierazpenak aurkituko dituzue bertan. Dakizuen bezala, Asier Bergaretxek, hiru urte ondoren, kargua utzi du eta, haren orde, Iñaki Uzkudun dugu Haurtzaro Ikastolako lehendakari berria. Noski, egindako lanarengatik eta erakutsitako konpromisoarengatik, eskerrik asko, Asier! Bestalde, hasten duzun etapa berri honetan, animo, Iñaki!

Beste kontu batzuk ere aipatzen ditugu ale honetan: Haur Hezkuntzako proiektua, Haur Eskolako otorduak, jantokiko zerbitzua edo 3 urteko haurren egokitzapena. Ikasturte honetan ere, berrikuntzak gure artean ditugu eta horren erakusgarri da, esate baterako, LH3ko, DBH3ko eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoko ikasleak biltzen dituen ElkarMaker proiektua. Berrikuntzen artean ere ezin ahaztu gure egunerokotasunean oso ezaguna egiten ari zaigun Alexia. Komunikazio eta kudeaketarako tresna berri honen nondik norakoak bertan aurkituko dituzue.

Beste alde batetik, Haurtzaro Ikastolako beka sistema propioaren berri ere baduzue. Azkenaldian bolo-bolo dabil ikastolak segregatzaileak garela, eta diskurtso horren aurrean argi adierazi nahi dugu Haurtzaro Ikastolan integrazioa bilatzen dugula. Gure finantzaketa eta bideragarritasuna bermatzeko, zoritxarrez, kuota horiek jartzera behartuta gaude, baina garbi utzi behar da, denon elkartasunari esker, kuotak ez direla inongo oztopo Haurtzaro Ikastolara etortzeko.

Dena den, agurrean ez dizuet, bada, ale honetako eduki guztia esango! Modernoek *spoiler* egiten ari naizela esango lukete. Zuen esku uzten dut, beraz, aukera duzuen tartetxoetan Txinpart aldizkariaren 70. ale hau hartu eta familian elkarrekin ala nork bere bakardadean gozatzea.

Agur bero bat!



“Gure ikastola denok partaide garela sentiaraizten gaituen egitasmoa izatea nahiko nuke”




Haurtzaro Ikastolak lehendakari berria du aurten: Iñaki Uzkudun. Azken hiru ikasturteetan Asier Bergaretxe aritu da jardun honetan, eta ikasturte honetatik aurrera Iñaki Uzkudun izango da Haurtzaro Ikastolako lehendakaria. Uzkudun (Brinkola, 1969) Haurtzaro Ikastolako guraso da 2011tik. Berarekin elkartu, eta hainbat galdera egin dizkiogu lehendakari arduraren inguruan.

Zer da Haurtzaro Ikastola zuretzat?

Komunitate bat, gure gizartea eraikiko duten haurrak, nerabeak eta gazteak hezteko aukera eta erantzukizuna duen komunitatea. Eta langileak, gurasoak, baita ikasleak ere, ikaste-irakaste lan-akademikoa baino urrunago iristen den heziketaren eragileak dira.

Oso garrantzitsuak dira Matematika, Ingeles, Irakurketa... baina haiek guztiek bezainbesteko garrantzia dute elkartasunezko jarduerak, elkarrekiko errespetuak, komunikazio estrategia osasuntsuek... Eta haien guztien lanketa ezin dugu irakasleen esku bakarrik utzi; gurasook ere erantzukizun handia dugu, komunitate osoaren inplikazioa ezinbestekoa baita.

Bestalde, herrigintza, euskara eta kulturaren bultzatzaile izateko herri ekimenez sortu zen Ikastola, eta espiritu horri jarraituz Oiarzunen paper garrantzitsua betetzen jarraitu behar duen eragile nagusietako bat da.





Alexia

Zerk bultzatu zaitu lehendakari kargua hartzera?

Egia esan, ez nuen lehendakari izateko bokaziorik. Asier Bergaretxek, hainbat urtez Kontseiluan eta lehendakari lanean aritu ondoren, utzi beharra zuela adierazi zigun. Lehendakariak kontseilukide diren gurasoen artetik atera behar duenez, Kontseiluan bozketa bat egin zen, eta aukeratu egin ninduten.

Bai kontseilukideek, bai Hezkuntza Batzordeko ordezkariak eta hainbat guraso nahiz irakasle laguntza eskaini didate. Ea denon artean lan txukuna egiten dugun.

Zer funtzio du Ikastolako lehendakariak?

Gainerako kontseilukideek dituzten funtzioez gain, Kontseiluaren izenean Ikastola ordezkatzeko, hainbat bileraren buru izatea... Idatziak daude eta ez dira oso erakargarriak.

Nire ustez, lehendakariak gurasoaren, Kontseiluaren eta Zuzendaritzaren arteko lotura izan behar du. Horrez gain, gurasoek parte hartzeko bideak eraikitzen saiatu behar du lehendakariak, gurasoen Talde Bideratzailearen laguntzarekin.

Zer erronka lortu nahi zenuke lehendakari moduan?

Eskaera berriak sortzen eta ikaste prozesuen ezagutza handitzen ari den heinean, gizartea aldatzen ari da. Etengabeko hobekuntzari jarraituz, aldaketa nabarmenak gertatzen ari dira Ikastolan. Ibilbide horretan elkarrekin joan behar dugu, eta, batzuek azkar joateko ahalmena badute ere, beste batzuek bidea ez dute hain garbi eta denbora gehiago behar dute. Abiadura desberdin horietan zailtasunak sor daitezke, eta aniztasun hori kontuan hartzea ezinbesteko dugu.

Komunitate osoaren inplikazioa ezinbestekoa da, informazioa eskatu, azalpenak eman, proposamenak egin... Komunikazio egokia egon behar du denen artean. Gure ikastola denok partaide garelako sentiarazten gaituen egitasmoa izatea nahiko nuke.



Hautzaro Ikastolan, garrantzi berezia eman izan diogu komunikazioari; ezinbestekotzat daukagu Ikastolaren eta familien arteko harremana bermatzea eta elkarren berri izatea. Ikasturtean zehar hainbat modutara izaten ditugu komunikazio horiek: asteroko buletinaren bidez, zuzeneko oharren bidez, noten buletinaren bidez, Ikastolako webgunearen eta sare-sozialen bidez, etab.

Aspaldian genbiltzan komunikazio hori bideratu eta gure eguneroko kudeaketa uztartuko zuen tresna egoki baten bila, eta asmo horrekin jarri ziren martxan, Ikastolen Elkartetik, hainbat proiektu; besteak beste, IkasDat, IkasWeb eta Ikastola Irekia. Teknologia, ordea, martxa ikaragarrian doa aurrera, eta ezin izan genion eutsi tresna horien garapenak eskatzen zuen esfortzuari eta erritmoari; hori dela eta, kanpoko tresnen azterketa egitea erabaki genuen. Hainbat aukera aztertu ondoren, Ikastolen Elkartea osatzen dugun ikastola gehienok Alexia plataformaren aldeko apustua egin genuen.

Orain arte, zuengana iritsi den Alexiaren zatia komunikazioarena bakarrik izan da: jakinarazpenak, kobrantzak, seme-alaben noten buletinak eta dokumentazio orokorra. Baina hori Alexiak eskaintzen duenaren zati txiki bat besterik ez da. Duela 4 ikasturte hasi ginen Alexiarekin lanean Hautzaron; lehenik, arlo pedagogikoan hasi ginen, gero arlo administratiboarekin jarraitu genuen eta, azkenik, familiekiko komunikazioari heldu diogu. Hori ez da ezarpenaren amaiera, ordea; etorkizunean beste ingurune batzuetara ere iritsiko da, hala nola jantokia, garraioa eta eskolaz kanpoko ekintzak. Horrek guztiak lanketa sakona eskatzen du, eta momentu askotan funtzionamendu ohiturak aldatzea. Tartean erabaki dezente ere hartu beharrean aurkituko gara, eta, ondorioz, garapen hori guztia poliki eta ongi egin beharra daukagu.

Esan bezala, komunikazio aukera berriak eskaintzen dizkigu Alexiak, eta orain arteko zenbait ohituraren aldaketa ere bai. Argi daukagu, aldaketa guztiek bezala, guztioi egokitzapen tarte bat eskatuko digula, baina bestalde oso argi daukagu, egokitzapen tarte hori amaitzen dugunean, guztiontzat oso lagungarria izango dela.

Komunikazio modu hori aukeratzeko garaian, ezin dugu ahaztu Hautzaro Ikastolak, Eskola Agenda 21en eskutik, ingurumenaren jasagarritasunarekiko daukan konpromisoa. Orain arte papera genuen gure komunikazioen oinarri. Ikasturtean zehar kopia asko egiten ziren eta kopuru hori jaistea ere helburuetako bat genuen. Bestalde, paperak eskaintzen ez digun berehalakotasuna ere eskaintzen digu eta oso barneratuta daukagun komunikazio modua ere bai... nork ez du WhatsApp mezu bat bidali ala jaso?

Amaitzeko, oraindik ere Alexiako kontua aktibatu ez duzenoi, horretara animatzen zaituztegu. Orain artekoa datorrenaren erakusgarri txiki bat besterik ez delako eta gure komunikazio modu berrian txertatzeko ezinbesteko tresna dugulako. Saiakeran edozein zalantza edo zailtasun izango bazenute, hurbildu mesedez idazkaritzara, eta elkarrekin konponduko dugu.



ELKARMAKER martxan da!

Irailaren 20ko goiza berezia izan zen Haurtzaro Ikastolan DBH3ko eta LH3ko ikasleentzat. Ezohiko egun bat izan zen, ezohiko jardun batean aritu zirelako goiz osoan zehar gure ikasleak Mondragon Goi Eskola Politeknikoko lau ikasleren laguntzarekin. Guztien artean ikasturte osorako proiektu bati hasiera eman genion; Elkarmaker egitasmoari, hain zuzen ere.

LH3ko ikasle guztiak, DBH3ko hainbat ordezkari eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoko lau ikasleak, bi gelatan banaturik, proiektuaren lehen urratsa egiteko elkartu ziren: ideia bat behar genuen, eta, ekintza honen bidez, LH3ko ikasleek erakutsi digute ideia bikainak dituztela. Eguneroko bizitzan lagungarri izango den gailu bat irudikatzeko eskatu genien txikiei. Arin ekin zioten lanari, lehenengo, bakoitzak bere irudimenean eta, gero, paperean, bururatutakoa irudikatuz. Taldeka, gustukoen zuten ideia aukeratu zuten. Ondoren, talde bakoitzak, DBH3ko ikasle ordezkarien laguntzaz, aukeratutako ideia plazaratu zuen gela guztiaren aurrean.


Bururatutako guztietatik, gela bakoitzean eta denen artean, ideia bakarra hautatu zuten: ARIN-ARIN txankletak, ur nahiz lur gainean ibiltzeko balio duten oinetakoak; eta ORNADE labea, etxeko alferrentzat, janaria zauden tokira eramango dizun labea. Guztiok nahiko genituzkeen gailuak!

Baina zer egin dugu ideia horiekin? DBH3ko eta Mondragongo ikasleak urte osoan zehar lanpetuak izango ditugu txikien ametsak egia bilakatzeko helburuarekin. Lehenengo, DBH3ko ikasleek proposamenak Teknologia saioetara eraman dituzte eta, pausoz pauso, bertan ideia horiek landu. Talde bakoitzak bere interpretazio eta moldaerak gehitu dizkio maketaren diseinuari.

Ondoren, diseinatutakoaren maketak eraiki dituzte hiru hilabeteen zehar. Abenduaren hasieran, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko ikasleak itzuliko dira Ikastolara egindako lana ikustera eta guztietatik bi maketa hoberenak aukeratuko dituzte ikasle guztien artean.


Orduan, Unibertsitateko ikasleen egitekoa hasiko da: maketa horiek aintzat hartuta, prototipoak egin beharko dituzte. Prozesu osoak ikasturte guztia hartuko du, eta amaieran, emandako pauso bakoitzean egindako lanen erakusketa antolatuko dugu.

Proiektu berri honen bitartez sormena, arriskuak hartzeko gaitasuna, elkarlana eta pertseberantzia eta konstantzia dira landu nahi diren gaitasunak. Ikastolen helburua ikasle konpetenteak hezteka izaki, behar-beharrezkoak diren ahalmen hauek garatzeko aukera ezin hobea eskaintzen du Elkarmaker ekimenak izaera teknologikoko proiektuen esparruan. STEM arloetan (ingeleseko siglak dira Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika adierazteko) izaera ekintzaileko jarrerak indartzea dugu helburu: arlo hauetako bokazioa sustatuz; sormen pentsamendua eta ekintzailetasuna garatuz eta STEM ikas-arloetan estereotipoak eta genero rola gainditzeko asmoz, erreferente positiboak eskainiz.





Pitja egiten du
labean ordularia
Ordularia
12:00



ORNADE

ERRAZ-ERRAZ

TXANKLETAK

Atzeko aldean



Zor da? Txankleta zulpituta

Zor egiten du? Urtean eta urtean
kampea aldatzen dira.

Aurreko aldean



Intxas Amaier
umai ugalds

Mirria

Sagorria 1.1
00
7.1

Markel Ilarguen



Haur Hezkuntzako proiektua



Azken urteotan, aldaketa nabarmena eman du Haur Hezkuntzak Haurtzaro Ikastolan. Ikastolako Federazioaren Haur Hezkuntzako Ikastolen Proiektuaren barruan kokatuta dago, eta Federazioaren laguntzarekin hausnarketan aritu da profesional taldea; horrek aldaketa honetara eraman du.

Haurra bera da bere garapenaren protagonista.

Haurra gaitasunez betetako izakia da, singularra, eta bere erritmo propioan garatzen dena.

Haurra mugimenduaren eta jolasaren bidez garatzen da, eta honek autonomia izan behar du.

Mugimendua eta jolasa oso ardatz garrantzitsuak dira haurraren garapenean.

Jolasaren bidez, haurra bere gaitasun guztiak garatuz joango da, ingurunea ezagutzen, besteekin erlazionatzen ikasiko du, gaitasun komunikatiboak garatuko ditu, emozioak kudeatzen ikasiko du, gizarteratzeko trebetasunak, iraunkortasuna...

Mugimendua, ekintza eta berezko duen esploraziorako sena JOLAS bilakatuz bere gaitasun guztiak garatzen ari da. Eta horrek guztiak era autonomoan egina behar du izan.

Hori guztia kontuan hartuta antolatu du Haur Hezkuntzak bere proiektua Haurtzaron, haurrak mugitzeko eta jolasteko behar duen

espazioa eta materiala antolatuz. Garapen honetan bidelagun izango du irakasleria, etengabe prestakuntzan murgilduta dagoen profesional taldea.

Bukatzeko, adierazi behar da **Haur Hezkuntzaren xedea familiarekin lankidetzan haurraren garapen osoa eta orekatua ahalbidetzea dela**, familia eta ikastola baitira haurraren sozializaziorako eta garapenerako lehen testuinguru eta guneak. Haurraren autonomia lortzen laguntzea eta haren ahalmenak garatzea dira bien helburu. **Funtsezkoa da, beraz, konfiantzazko eta onarpeneko harremanak eraikitzea familiaren eta ikastolaren artean**, hezkuntzarekiko erantzukizunak partekatu eta haurraren oinarritzko beharrianak asetzeko.

GUNE BERRIAK EZAGUTU NAHI
DITUZTEN GUZTIAK GONBIDATUTA
DAUDE GURERA. ANIMA ZAITEZ!





Otorduak Urmendi Haur Eskolan



Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa den Urmendi Haur Eskolan 0 eta 3 urte bitarteko haurren heziketaz arduratzen gara. Egiten dugun lan pedagogikoa haurraren heziketa integrala lortzera zuzenduta dago. Horretarako, hezitzaile-irakasle profesionalen laguntza senda eta goxoarekin hazteko aukera eskaintzen dugu.

Hori dela eta, heziketa integral horren barruan kokatzen dugu ELIKADURA ere. 0 eta 3 urte bitarteko haurrak ditugu bertan, eta bizitzako lehen urte hauetan elikadura oso garrantzitsua da haur txikiak osasuntsu hazteko.

Hori honela izanik, haxe da gure lan modua:

- Gure sukalde propioa dugu eta 3 sukaldari ari dira lanean 130 haurrentzat otorduak prestatzen.
- Bertan prestatzen dituzte eguneroko menuak / otorduak: bazkaria eta askaria.
- 2009an Ekolapiko fundazioarekin lanean hasi ginen (gaur egun desagertuta dagoena) eta zenbait aldaketa edo berrikuntza jarri genituen abian:
 - Barazki, fruta, lekale eta zereal EKOLOGIKOAK ETA GARAIAN GARAIKOAK erabiltzen ditugu.
 - Haragia, arraina eta ogia gure herriko dendetan erosten ditugu. Okina, harakina eta arrain saltzailea zuzenean Haur Eskolara etortzen dira produktua ekartzera. Beraz, sukaldariak zuzeneko harremana dute beraiekin. Elikagai freskoak erabiltzen dira. Egunean egunekoa, hau da, izozturik ez. Ondorioz, konfiantzazko produktua da eta bertakoa! Kalitatezkoa.
- Ekolapikoko nutrizionistarekin kontrastatutako menuak prestatzen dituzte gure sukaldariak. Txikieneen kasuan, pediatrik familia bakoitzari emandako gomendioei jarraitzen diegu.

- Familiei hileroko menua helarazten zaie eta horrela badakite egun bakoitzean zer jango duten.

- Sukaldariak Haur Eskolako parte dira eta bertako haurrekin eguneroko harremana dute. Harreman estua. Sukaldea bera ikusgai dago Haur Eskolaren sarreran, erdian kristalera handi bat baitu. Beraz, bai familiek, bai haurrek sukaldariak gu guztion otorduak prestatzen ikusten dituzte.

Haurraren ongizatean, otordu garaiek garrantzi handia dute eta ezinbestekoa da momentu horietan giro lasai eta gozoa eskaintzea, beren erreferentziatzeko gelakideekin eta hezitzailearekin eta beren gelan. Horregatik, Haur Eskolako gelak momentu bakoitzeko beharretara egokitzen dira: lotarako, jolas librerako, hainbat proposamenetarako, baita bazkal garairako ere.





Otorduak eta zaintza zerbitzua Haurtzaro Ikastolan



Haurtzaro Ikastolako jantokiko erabiltzaileen kopurua 622 ikaslekoa da: Haur Hezkuntzakoak, 135; Lehen Hezkuntzakoak, 315; eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak, 172. Egutero, batez beste 530 ikasle inguruk bazkaltzen dute jantokian.

Otorduak

Menu guztietan karbohidratoek, proteinek, gantzek eta bitaminek presentzia dute. Lehenengo plateri dagokienez, astean bitan barazkiak prestatzen dira, eta lekariak astean behin edo bitan, baita pasta eta arroza ere. Bigarreni dagokienez, astean bitan arraina eta haragia (behikia, txerriak, hegaztia); eta beste behin, arrautza (hilean behin) edo esnekiak (kroketak, lasagna, biribilkiak...). Azkenburuko gisa, astean bitan ala hirutan fruta eskaintzen da; behin ala bitan, jogurta; eta bost egunetako asteetan, bertan egindako postre berezia.

Bestalde, elikagai biologikoak, bertakoak eta sasoikoak erabiltzen dira ahal den neurrian. Behi esnea Ugaldetxoko Arane baserrikoa da, eta barazkiak Oiartzungo Arraztalo taldeak ekoiztutakoak dira. Halaber, zenbait produktu herriko saltokitatik eskuratzen dira. Azkenik, hauexek dira erosketa irizpideak: produktuak hurbilekoak, biologikoak, kalitatezkoak eta plastikozko bilgarririk gabekoak izatea.

Jatorriak

Jatorduetan bertako begirale-zaintzaileek jankideei bazkaria zerbitzatu eta jaten laguntzen diete; azken batean, janariarekiko harremanean ikasleen bidelagun dira. Horrekin batera, elkarrekin bizitzen ikasteko beharrezkoak diren errespetua eta jatorduetako jarrera egokiak sustatzen dituzte.

Eremu honetan jazotzen direnak ikaslearen heziketa prozesuaren osagai direnez, eguneroko jarraipena egiten da eta txosten idatziak helarazten dira familietara: HH1en, 1. hiruilekoan egokitzen egiten denez, hasieran astero eta, ondoren, hamabost egunehi behin; eta 2. eta 3. hiruilekoetan, hilean behin, HH2n eta HH3n bezalaxe. Aldiz, LHn eta DBHn, hiru hilez

behin igortzen dira. Aipatu txostenetan ikasleak jakiekiko duen jokabidea, higiegi ohiturak, eta kideekiko eta hezitzaileekiko jarrerak biltzen dira. HH1en, haiez gain, egokitzenaren eta sietari buruzko aipamenak egiten dira.

Zaintza

Ikastolako jantokian bazkal osteko tartean ikasleek arduratzeko zaintza zerbitzua eskaintzen da. Zerbitzu hau ikasleen adinaren arabera eta bakoitzaren nahiari erantzunez antolatzen da.

HH1eko haur gehienek bazkaldu ondoren lo kuxka egiten dute. Gainontzekoak, eguraldi ona izanez gero, HH2koekin batera hartxintzarretako eremuan ibiltzen dira jolasean, zarranbiloetan, txirristan, pala eta ontziekin, baloiekin, sokekin... Eguraldi txarra dagoenean, aldiz, jantoki barruan aritzen dira marrazten, puzzleak egiten, plastilinarekin...

Eguraldi onarekin, HH3tik LH2ra arteko aukera dute jantoki barruan gelditzeko edo jolaslekura ateratzeko. Jantoki barruan, "txokoa" deitutako eremuan aukera dute margotzeko, eskulanak egiteko, legoekin eta mahai jolasekin jolasteko... Jolaslekuan baloiekin, pilotekin, sokekin... jolasten dira. Eguraldi txarrekin denak barruan gelditzen dira.

LH3tik LH6ra bitarteko ikasleek, berriz, beti dute aukera kalera atera edo "txokoa" gelditzeko. Jolastokiak txandaka erabiltzen dituzte. LH3-LH4ko ikasleek egun batzuetan aurreko aldea dute, eta LH5-LH6koek egun horietan jolastoki berria (jantoki ondoan dagoena); beste egunetan alderantziz izaten da. Balloiekin, pilotekin, raketekin, sokekin... jolasten dira. Frontoia, berriz, eremu librea da; nahi duenak erabil dezake. Eguraldi txarreko egunetan bi aukera dituzte ikasleek, frontoia erabili edota "txokoa" gelditu.

Azkenik, DBHkoek kalera atera edo "txokoa" gelditzeko aukera dute. Eguraldi onarekin aurreko aldean, jolastoki berria eta frontoian ibil daitezke. Futbolearen aritzen direnek ateak banatzen dituzte LHkoekin.





Egokitzapena

Urmendi eta Haurtzaroko tutoreak

Irailean, "3 urtekoak" deitzen diogun neska-mutil taldea hasi zen Ikastolan, 2015ean jaiotakoak.

Hauetako gehienak lehenetik Urmendin ibiliak dira, eta hiruzpalau, berriz, ordura arte etxean egondakoak.

Egokitzapen aldia uste duguna baino prozesu konplexuagoa da. Haurrak ordura arte haren erreferentzia nagusia izan den helduarengandik banatu behar du. Ezezaguna zaion espazio batera etorriko da, eta konfiantzarik ez duen heldu berri batekin pasatu beharko ditu zenbait ordu.

Horretaz gain, espazioa, jolaserako objektuak eta, nola ez, heldua bera partekatzea egokituko zaio, eta partekatu beharrak liskarrak, tristura eta deserosotasuna sorraraziko dizkio zenbait momentutan.

Beraz, helduok, askotan, "ze ongi, Ikastolara jolastera" eta antzeko esaldiak esaten ditugunean, ez gara kontziente haur gehienek ez dutela horrela bizi. Noski, haur bakoitzaren izaera, banaketaren lehen aldia den edo ez eta gurasoen jarrera erabakigarriak izango dira egokitze prozesuan. Horrek indibiduala eta haur eta familia bakoitzaren beharretara egokitua behar du izan. Hartara, haurraren erritmoa errespetatuz, eta komunikazioa bermatuz, haurra lasai eta gozo egotea lortuko dugu.

Azken urteetan, ekainean Urmendiko neska-mutilek ikastola "handia" ezagutzeko aukera izaten zuten; eta, bide batez, heldua ezagutzeko ere. Bisita horiek haurrik ez zen egunetan egiten ziren beti. Guk, tutoreek, ondo baloratzen genituen, horrela irailean espazioa eta heldua ezagunak baitzituzten.

Hori guztia kontuan izanda, 2017-18 ikasturteko maiatzean eta ekainean, Urmendiko 2 urteko haurrei irailean ezagutuko zuten espazio berria bisitatzeko aukera eman zitzaion. Sei saio egin zituzten, lehenabiziko laurak bertako gela inor ez zegoela; beste biak, berriz, 3 urteko haurrekin batera. Azken hauetan, elkarrekin ipuin bat ikusteko aukera izan zuten.

Etiketetik zetozen haurrei ere aukera berdina eman zitzaion. Ekainean zehar, espazioa ezagutu eta bertan zeuden haurrekin hartu-emanen aritzeko aukera eman zitzaion, beraien erreferente heldua bertan zegoelarik.

Haurren aldetik erantzun ezberdinak jaso genituen. Hasieratik espazio berria gustura esploratu zuenik izan zen, baita helduaren alboan egotetik pixkanaka distantzia hartuz joan zenik ere. Azken batean, bakoitzaren interes eta prestasunaren arabera, espazio eta materiala deskubrituz joan zen, eta bertan konfiantza handiagoz mugitzen. Esan dezakegu egun horiek "ikastola handiaren" irudi bat sortzeko balio izan zirela txiki hauei.

Kaleko espazioa ere ezagutu zuten, eta hango sukalde, egur eta hareatzan jolasean, zenbaiten senide, lehengusu, lagun edo ezagunekin topo egin zuten. Denetariko emozioak bizi izan zituzten: poza, lotsa, urduritasuna, etab.

Saio horiek modu positiboan baloratu ditugu bai irakasleok bai gurasoek. Haurrei dagokienez, Ikastolara gogotsu joaten zirela ikustea nahikoa seinale izan zen guretzat.



Urmenditik datorren familiaren iritzia

Gure seme-alabak Ikastolan hasiko direnean guraso gehienok izaten dugun lehenengo kezka izan ohi da egokitzapena. Gure iritziz, ez dago "formula" bakarra egokitzapenerako; hau da, ume guztiak ezberdinak diren heinean, bakoitzaren egokitzapen prozesua ere halakoa izango da.

Badira lehen aldiz etxekoengandik bananduko direnak, baina gehienak 2 urteko gelan Urmendin eskolatutakoak dira. Gure alabaren kasua hori izan da, eta iaz lehenbizikoz burututako bisitak lagungarriak izan zirela uste dugu.

Eremua ezagutzea eta tutoreak izango direnekin lehen hartu-emanak hastea positiboki baloratzen dugu.

Ikastola "handira" Urmendiko tutoreekin zubi lan hori abiatzeak segurtasuna eman diela iruditzen zaigu. Horregatik, aldaketara egokitzeo egindako planteamenduarekin jarraitzea garrantzitsua dela uste dugu.

Etiketetik datorren familiaren iritzia

Gure txikia Ikastolan matrikulatzea erabaki genuenean, ez genituen ezagutzen egokitzapenaren nondik norakoak. Lehenengo aldiz Ikastolara joaterakoan, familiaren eta Ikastolaren arteko lotura bat egotea beharrezkoa ikusten genuen.

Ekainean, Ikastolak proposatu zigun haurra goizetan HH1 gelara eramatea gurekin batera. Haurra naturaltasunez murgildu zen ingurune berri batean, bere beharretara egokitua, askatasun osoz. Izugarritzat izan zen haurrarentzat horrelako aukera bat izatea eta are gehiago haren tutore den Aintzane (Ixiar eta Josune ere) ezagutzea Haur Eskolako haurrekin batera, bere berdinekin.

Haurrak bazekien irailean nora zihoan eta lasaitasun handia eman zigun gurasooi ere. Asko eskertzen diogu Ikastolari horrelako egokitzapena eskaini digutelako. Izugarria izan da! Dudarik gabe, bigarren txikiarekin errepikatzea gustatuko litzaiguke.





Bekak Haurtzaro Ikastolan



Haurtzaro Ikastola **ikastola integratzailea** izan da sortu zenetik. Hasierako urteetako auzolanak, mantenu lanetako taldeak, garbiketa taldeak, finantzaketa taldeak, etab. orduko bazkideen artean bideratzen ziren.

Haurtzaro Ikastolan Oiarzungo gizartea osatzen duten familia guztiak dira Ikastolako proiektuaren partaide, egoera ekonomikoa alde batera utzita. Eta irizpide integratzailea gauzatzeko Haurtzaro Ikastolak 90eko hamarkadan Ikastolako bekak martxan jarri zituen eta beka komisioa ere eratu zuen.

Zeintzuk dira beka komisioaren eginkizunak eta nola bideratzen dira Ikastolako bekak?

1.- Egoera berezietan dauden familiak

Oiarzungo Udaleko Gizarte Ongizateko teknikariekin elkarlanean egiten den familien artapena. Elkarlan honen helburu nagusia zera da: ikaslearen eskola ibilbidea normaltasunez egitea.

2.- Kuota murrizketak - Ikastolako bekak

- Hezkuntza Saileko beken osagarriak dira. **Irakaskuntza kuoten murrizketa bideratzen da familia bakoitzaren errenta mailaren arabera.**
- Kontseilu Errektoreko Beka Komisioak kudeatzen du.



3.- Kuota ordaintzeko erraztasunak

Unean uneko egoera familiarrei ere aurre egiten zaie. Familia guztietan egoera desberdinak suerta daitezke eta, besteak beste, kuotak ordaintzeko erraztasunak bideratzen dira.

- Familiekin adostu eta kuota konstante bat jartzean datza.

4.- Guraso bakarrek familientzako laguntzak

Guraso bakarrek familiei kuota osagarrian, bigarren senideko kuota ezartzen zaie automatikoki. Kasu hauetan ere, behar izanez gero, familien egoerak aztertzen dira.

Beka komisioan familien egoera ekonomikoak eta uneko egoerak aztertzen dira, eta konponbide desberdinak bideratzen dira elkarlanean. Haurtzaro Ikastolak, barruko beka sistema erabilita, komunitate osoko integrazioa lortzen duela esan dezakegu.



Aingeru Oiarzabalekin doluaren eta galeraren inguruan ikasten



Heriotzagatik zein banaketengatik gailera eta haien ondoriozko dolua, maiz, ikastolan ikasleekin kudeatu beharreko gaiak izaten dira. Horrez gain, gizartean ere, dolua eta haren kudeaketa egungo gaia da, ezbaierik gabe. Hori horrela, aurtengo ikasturtean gaiari heldzea ezinbesteko ikusi dugu.

Gaia lantzeko, aurrez herrian hitzaldia emana zuela jakinik, psikologoa eta doloan aditua den Aingeru Oiarzabalekin harremanetan jartzea erabaki genuen. Lehen saio bat egiteko eskatu genion irakasle klaustroari gaia orokorrean aurkezteko helburuarekin.

Saio honen balorazioa oso positiboa izan zenez, eta irakasleek gaiak sakontzeko beharra ikusi zutenez, bigarren saio bat egitea eskatu genion; oraingoan, gure errealitateari eta adinari egokitua. Bertan, bereziki banaketengatik doloa eta dolo horren kudeaketa egokia nola egin landu genuen zikloa.

Aurrera begira, heriotzaren eta banaketaren ondoriozko doloa kudeatzeko gure ikastolarako prozedurak definitzea izango dugu helburu, jakinik kasu bakoitzak bere ezaugarri propioak dituela eta horrela errespetatu behar direla.

Hemendik eta lerro hauen bidez, Aingeruri eskerrak eman nahi dizkiogu erakutsitako eta emandako laguntza guztiagatik.



Gurasoak festarako eta lanerako gogoz

2017-2018 ikasturtean, urte askoan Ikastolako festak antolatzen ibili zen guraso taldeak amaitutzat eman zuen bere ibilbidea. Lekukoa hartzeko talde berria sortzeko premia zegoen eta, horretarako, deialdi irekia egin zen barne buletinaren bitartez. Hamahiru lagunek eman zuten izena, dena esan behar bada, ia guztiak amak. Taldeko kideekin elkartu, eta haien iritzia jaso ditugu.

Ikastolako festak antolatzen laguntzeko guraso talde berria hasi zen lanean iazko ikasturtean. San Tomas eguna, Inauteriak, Ikastola Eguna eta Xanistebanak dira Festa batzordearen agendan sartzen diren lau jaiak. Iazko ikasturtea kokatzeko eta ikasteko urtea izan zen; hemendik aurrera, ahal den neurrian hobetu eta ekarpen berriak egin nahiko lituzketela esan digute. Izan ere, Eli Lizasoren iritziz, "Ikastola ez da soilik gure haurrek ikasten duten gunea. Ikastola herriko eragile aktibo bat da, harremanetan jartzeko gunea da, eta nik gustura parte hartzen dut horrelako taldeetan nire ekarpena eginez".

Talde irekia eta parte hartzeko erraza

Esan bezala, taldea iazko ikasturtean sortu zen, baina oraindik ez dago egonkortuta. Oraingoan, Ikastolak antolatzen edo ospatzen duen jai bakoitzerako talde bana sortu da; alegia, lau azpitalde. Aloña Irastorzaren iritziz, "nahiko ongi asmatu dugu lanak banatzen. Festa batzordeko guraso guztiok ez dugu zertan jai guztiak antolatzen ibili. Bakoitzak ongien datorkion azpibatzerdean eman du izena eta, horrela, eramangarriagoa da. Norberaren jaia hurbildu ahala, azpibatzerde hori gehiago aktibatzen da, baina ez dugu urte osoan zehar lanean egon beharrik. Nire ustez, orain, eronketako bat berrikuntzak txertatzea izango da".

Rakel Martin bat dator ideia horrekin: "Ikastola Egunean, esaterako, gurasoek bazkaltzen duten bitartean haurrak entretenitzeko hainbat jolas antolatzen da DBH3ko ikasleen laguntzarekin. Jolas horiek urte askoan errepikatu dira eta bada garaia zerbait berria egiteko. Politia litzateke ikasle, irakasle eta gurasoek Ikastola Egunerako jarduera berriak proposatzeko gai izatea. Horrek esan nahi du garaiz aurreikusi beharko direla eskaini nahi diren jolasak, eta, seguru asko, taldean gabiltzan gurasoek gain, arotz, diseinatzaile eta bestelako ofizioetan iaioak diren gurasoen laguntza beharko dugula".

Festa batzordea talde dinamiko da eta izaera horri eutsi nahi

dio. Horrek esan nahi du edozein unetan guraso berriak sartzea nahiko genukeela. Agian, orain arte ez duzu talde honen berri izan edo ez zara bileretara etortzera ausartu ez duzulako zeure burua horrelako talde batean ikusten, baina aurreiritziak alde batera utzi eta taldea bertatik bertara ezagutzera gonbidatu nahi zaituzte guraso horiek. Bakoitzak nahi duen jaia antolatzen lagun dezake, eta batzordean sartu gabe ere, puntualki lagun daiteke bakoitzak gustuko duena edo eroso sentitzen dena eginez. Beraz, badakizu, buletinean Festa batzordearen bilera dagoela irakurtzean, hurbildu beldurrik gabe.

Txosna batzordea ere bide beretik

Festa batzordean lekukoa eskuz aldatu den bezala, Txosna batzordea berrantolatzeko beharra ere badago. Urteetan, guraso talde berak izan du Xanistebanetako txosna antolatzeko ardura. Iñaki Uzkudunen hitzetan, "egia da txosnako txandetan hamarna guraso ibiltzen dela lanean eta guztion lana da eskertzeko eta beharrezkoa, baina txanda horietara iritsi aurreko isileko lana guraso gutxi batzuen ardura izan da orain arte. Txosna muntatu, janari eta edarien erosketak egin, Xanistebanek irauten duten bitartean sortzen diren ezustekoei aurre egin...".

Orain arte, ardura nagusia guraso gutxi batzuen esku egon izan da. Hemendik aurrera, batzordea guraso berriak erakartzearekin batera, lan horiek guztiak era orekatuan banatzen asmatzea da asmoa. Iñakiren iritziz, "beharrezkoa da Xanistebanetako batzordea berrantolatzeko, Festa batzordearekin egin den bezala. Lanak ongi banatuta, lortu beharko genuke urteetako esperientzia eta berrikuntzarako gogoia uztartzea gutako inor gehiegi nekatu eta aspertu gabe. Horretarako gakoa zein den? Ahalik eta guraso gehienek parte hartzea eta elkarlanean jardutea".

Urtez urte, Ikastolako gurasoek lan bikaina egin dute jaiak eta ospakizunak antolatzen. Ea aurrerantzean ere lekukoa gogotsu hartu eta bide beretik jarraitzeko gai garen!

URMENDI HAUR ESKOLA



Paper birrindurekin disfrutatuz



Areatzako hondarrarekin gozatuz



Oinatz ezberdinak zapalduz



Koloretako tizekin lanean



Argi mahaiarekin jolasean



HAUR HEZKUNTZA 1

Udazkenaz gozatz



UDAZKENEKO GOIZ GOXO BAT APROBETXATUZ, HH1eko IKASLEAK BIDEGORRITIK BARRENA ARRAZTALOKO BARATZEETARA JOAN GINEN ARTO BILA. BERTAN, ARTA-BURUAK JASO, ETA ZURKOTIK BARRENA IKASTOLARA ITZULI GINEN. HURRENGO EGUNETAN, GOGO HANDIZ EGIN GENION LANARI.

GURE HATZ TXIKIEKIN ARTAZURIKETAN HASI GINEN, TXURIKINA KENDU, ARTOA ALETU, TXIKORTEKIN JOLASTU, HAIEKIN ESPERIMENTATU...

GAINERA, DENOK DAKIGUNEZ, ARTO-IRINAREKIN TALOA EGITEN DA. SAN TOMAS EGUNEAN A ZER NOLAKO TALO GOXOAK JANGO DITUGUN... UUUMMMM!



Udazkenaz gozatz

BEGIRA ZEINEN ONGI PASATZEN ARI
GAREN UDAZKENEAN!

EKINTZA UGARI EGIN DUGU:
GAZTAINAK BILDU DITUGU GURUTZEN,
BASORA JOAN GARA HOSTOAK
BILTZERA, OMAKO BASOA IRUDIKATUZ
ENBORRAK MARGOTU DITUGU. ETA
BUKATZEKO, INURRITEGI EDER BAT
EGIN DUGU DENEN ARTEAN.

ORAIN UDAZKENAZ GEHIAGO DAKIGU!



HAUR HEZKUNTZA 3

Garraioa



HH3kook GARRAIOA GAIA LANDU DUGU. HASIERA BATEAN IKASLE BAKOITZAK ESAN ZUEN ZEIN GARRAIO MOTA ERABILI ZUEN OPORRETAN (HEGAZKINA, TRENA, KOTXEA...). EKINTZA UGARI EGIN GENITUEN: BERAIEK AIPATUTAKO LEKUAK MAPAN KOKATU, GARRAIO MOTA DESBERDINAK SAILKATU, ERAIKUNTZETAN BIDEA EGIN, GARRAIO MOTA DESBERDINEKIN JOLASTU, TENPERAZ MARGOTU...

GAIARI BUKAERA EMATEKO, AUTOBUSEZ HONDARRIBIRA JOAN GINEN. BERTAN GURE LAGUN, GURASO ETA PILOTU DEN GARIKOITZEK AIREPORTUA ERAKUTSI ZIGUN. ONDOREN, ITSASONTZI ZORAGARRIAK IKUSI GENITUEN PORTUAN. HORI GUZTIA EGIN ONDOREN, GOSE GINEN ETA PARKEAN BAZKALTZEKO AUKERA IZAN GENUEN.

ZEINEN EGUN POLITA!



1. mailakook ginkana egin genuen



OSO ONDO PASATU GENUEN ETA ARIKETA ASKO EGIN GENITUEN:
BALOIA KANASTAN SARTU, KARTOIZKO PIRAMIDEA EGIN, SOKA
GAINETIK IBILI, KUBOETAN HAMAR PILOTA SARTU...


TALDEAK EGITEKO, MASAILAK MARRAZTU ZIZKIGUTEN IRAKASLEEK.

SORPRESA ONA IZAN ZEN.

BESTE EGUN BATEAN BERRIRO EGIN NAHI DUGU.



NEGUKO SOLSTIZIOKO OSPAKIZUNAK



San Nikolas txikia

Abenduaren 6an, San Nikolas eguna ospatzen da. Euskal Herriko hainbat lekutan Oles egiteko ohitura dago, hau da, etxez etxe kantuan ibiltzeko ohitura, etxekoei zorionak emanez eta etxeko guztiei koplak kantatuz. Haurtzaro ikastolako haurrak ere ohitura zahar honi jarraituz kantari ibili dira Oiartzungo Elizalde auzoan zehar.




NEGUKO SOLSTIZIOKO

San Tomas

Ohitura zaharrari jarraituz, abenduaren 21ean ospatu da Haurtzaro Ikastolan San Tomas jaia. Horrekin batera, Olentzero eta Mari Domingiren bisita izan dute haurrek. Garai batean baserri azokaren eguna zen, baserritar asko maizter bizi ziren euren baserrietan, eta aldiro errenta ordaindu behar zioten nagusi edo jabeari. Horretarako epea San Tomas eguneraino luzatzen zen. Egun horretan hirira jaisten ziren errenta ordaintzera eta, bide batez, euren produktuak (barazkiak, kapoiak, oilaskoak...) saldu eta beste batzuk erosten zituzten. Gainera, hirietan bizi zirenek, Gabonetan zehar jango zituzten jakiak erosten zituzten.




OSPAKIZUNAK



NEGUKO SOLSTIZIOKO



OSPAKIZUNAK



NEGUKO SOLSTIZIOKO

Olentzero eguna

J.M.Satrustegik “Solsticio de invierno” liburuan dioenez, urtero berritzen den naturako indarren errepresentazioa izan zen lehendabizi Olentzero.


Jatorriz, suarekin du erlazio zuzen-zuzena. Enbor baten bitartez irudikatu du herriak. Gabon gauean Euskal Herriko etxe askotan, enbor handi bat jartzen zen sutan, Olentzero subila hain zuzen ere, hori izanik erretzen zena. Subil horrek indar berezia izango du: abereak (ondasun adierazle bezala) eta etxeakoak zainduko ditu hurrengo urte osoan.

Gure Olentzero artzaina da zenbait tokitan, nekazaria beste batzuetan, ikazkina hainbaten ustetan. Azken jentila dela diote batzuek...

Ohitura zaharrei jarraituz ikastolako ikasleak Oiartzungo auzoak alaitu dituzte kantu kantari.



OSPAKIZUNAK





LEHEN HEZKUNTZA 2

Erdi Aroko altxorrak ezagutzen...



Erregeak, erreginak, gazteluak, feudoak, hiribilduak, zaldunak, gerlariak, nekazariak, kleroa, bufoiak... Ba al dakizue historiako zein garaitara egin dugun bidaia 2. mailako lagunok? Erdi Arora!

Mila urte baino gehiago egin ditugu atzera Fermin eta Maddalenekin, Erdi Aroko pasadizo, bitxikeria eta abenturak ezagutzeko. Zeinen desberdinak Erdi Aroko bizimodua eta gaur egungoa...

Oiartzunek Erdi Aroan jaso omen zuen herri izendapena. Erdi Arotik datozen Iturriozko Garbuno eta Makutso baserriak ezagutzera joan gara aski pozik paseoa eta, horretaz gain, Arkalen dagoen Beloaga gazteluaren berri ere izan dugu.

Gurutzen kokatutako Beloaga eraikuntzari buruz gehiago jakiteko irrika sortu zaigu eta Joxe Mari Iturriotz ikertzailea guregana etortzera gonbidatu dugu. Joxe Marik, bere lankide batzuekin ekoiztutako dokumentala aurkezteaz gain, istorio pila bat kontatu dizkigu.

Nafarroako erresumakoa izan zen Beloagako gaztelu honetatik abisuak ematen zizkieten beste gazteluetakoei kearen bitartez seinaleak eginez. Joxe Marik eta haren lagun ikertzaileek txanponak, musugitarak, arma desberdinen zatiak eta antzeko Erdi Aroko aztarna ugari aurkitu dituzte aipatutako gazteluan.

Eskerrik asko, Joxe Mari, Oiartzungo leku berezi eta interesgarri honi buruz hainbeste erakusteagatik!



Ikastolatik Egiptora!



LH3ra iritsi eta beste zibilizazio bat ezagutzeko aukera izan dugu. Gure laguna den Kleorekin Antzinako Egiptoko hainbat gauza ikasi ditugu: Egipto non dagoen, Nilo ibaiaren garrantzia, egiptoarrak nola bizi ziren, hezkuntza, gizarte antolaketa, jainkoak, eraikinak eta erabiltzen zuten hizkuntza. Egiptoarrek hieroglifikoa erabiltzen zuten, irudien eta sinboloen bidez idazten zuten.

A	B	C	D	E
F	G	H	I	J
K	L	M	N	O
P	Q	R	S	T
U	V	W	X	Y
Z				

Ea gai zaren zure izena idazkera hieroglifikoa erabiliz idazteko.

Egiptoko bidaiari bukaera emateko, gela bakoitzak maketa bat eraiki du, eta LH2koei zein gurasoei aurkeztu diegu.

Gaia oso interesgarria izan da!



LEHEN HEZKUNTZA 4

Ameriketara joan nintzen



“Amerikara joanez” abiatu gara. Anjel Ibarguen gonbidatu dugu, gaztetan Ameriketara joan baitzen lanera. Galdera mordoa egin diogu haren bizipenak jakiteko asmoz.

Zibilizazio desberdinak landu ondoren, Amerikan eta munduan zehar hamaika “EUSKAL ETXE” daudela jakin dugu. Azken bi urteetan Argentinako lagun batzuekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta aurten ere asmo bera dugu. Hitzordua adosteko, mezu elektroniko bat idatzi diegu. Hortik aurrera, Ignacio eta Martina gelan izan ditugu. Ordenagailuz beste aldera Marcial, Juanchi eta Ainhoa euskal argentinarrei galderak egin, elkarrekin abestu eta dantzatu eta, nola ez, matea dastatzeko parada ere izan dugu.

Kaixo Ignacio,

Gu Haurtzaro ikastolako LH4Cko ikasleak gara. Amerika gaiarekin ari gara eta horregatik zurekin harremantan jarri nahi genuke. Gure nahia litzateke aukera bazenu, guregana etortzea egunen batean. Gogo handia dugu zu ezagutzeko eta galdera batzuk egiteko. Hango bizimodua, eskulturak, paisaia, janaria klima eta euskaldunak ezagutu nahi genituzke.

Zure erantzunaren zain geratuko gara, mila esker zure arretagatik.

LH4C

Kaixo Martina,
Zer moduz zaude? Gu, Haurtzaro ikastolako ikasleak gara eta Amerika gaia lantzen ari gara. Jakin dugu, Argentinatik Euskal Herrira etorri zarela. Gustatuko litzaiguke zu, gure ikastolara etortzea Argentinako euskaldunak nola bizi zaren jakiteko. Prest al zaude guregana etortzeko?

Ongi pasa!

Laister arte!

LH4A.maila|

Arratsalde on Juanchi, Ainhoa, Iñaki eta Marcial:

Zer moduz zaudete?

Lidek, gure irakasleak, kontatu digu duela bi urte zuekin hitz egin zutela Skype bitartez. Hori entzun eta gero guk ere zuekin komunikatu nahi genuke. Esan digute Euskal etxean Euskararen eguna ospatzen duzuela, horren berri ere nahi dugu jakin.

Noiz gera gintezke zuekin hitz egiteko?

Zuen erantzunaren zain egongo gara.

GORA EUSKAL ARGENTINARRAK!!!

LH4Bko Jacob, Aitor, Kattalin, Maddi A, Enara, Eki C, Nahia, Alain, Unai, Ioritz, Maddi M, Alex, Anje, Aretx, Iraia, Elaia, Eneko, Ekhi, Bihotz, Eki Z, Intza, Ganix, Irati eta Lide

Besarkada hestu bat Haurtzaro ikastolatik.



juanchi yacomini

hartzaileak: ni ▼

aza. 11, ig. 21:54 (Duela 10 ordu)

Kaixo neska-mutilak!

Gustora hitz egingo dugu!

Hurrengo ostiralean, hemengo 11.30etatik gutxi gorabehera (hango 15.30etatik) prest egongo ginateke nahi duzuen erantzuteko eta diasporaren gauza batzuk kontatzeko.

Orduan, besarkada handi bat eta ostirala arte!

Marcial, Ainhoa, Fran, Iñaki eta Juantxi



Zientziatik artera, artetik gure jakintzara

(Ama begira ezazu
doinuan)

Donostira joan ginen
zientzi museora
izar, konstelazioak...
gu denak gustura.




Gora-gora begira
denak egon ginen
astro eder politak...
zerua edertzen.

Egunsenti, eguzki,
gaua ta izarrak
plastikan egiteko
ez gaude hain txarrak.



Txundituta gabiltza
gu pasiluakin,
ederki apaindua
marrazki hauekin.

Margolariak gara
ta zientzialariak
ta hori gutxi balitz,
gaur bertsolariak.





Poza ematen digu
hauen ikusteak,
merezi du, lagunak,
asko ikasteak.

Donostira jun ginen
zientzi museora
ta jakintza ekarri
gure pasilora.



HAZIAK: Laguntasuna

Laguntasuna, ezetzak, harremanetan sortzen diren korapiloak... Horiek denak eta gehiago landu ditugu Haziak proiektuaren bitartez. Eta zer da guretzat laguntasuna? Hementxe sortutakoaren pintzeladak. Zer iruditzen zaizu zuri?




ELKARTASUNA
MAITATU LAGUNDU JOLASTU
LIBRE UTZI ANIMATU ZAINDU
ERAKUTSI LASAITU ENTZUN
KITZIKATU BABESTU POZTU
ONARTU ERRESPETATU
SEKRETUAK MANTENDU



Érase una y otra vez...

DBH1en, Lengua Castellana y Literaturako 1. unitatean, “Érase una y otra vez...” izeneko, ipuin klasikoetatik abiatuta, ikasleek beren bertsioak idatzi dituzte. Eneko Arozenak, ipuin berria sortzeaz gain, komikia egin du. Hitza eta irudia elkartzen saiatu da.



ARTZIKIROLA



DBH2ko Gorputz Heziketako saioetan, artzikirola izeneko kirol berria lantzen ari gara. Artzikirola eskubaloiarekin, errugbiarekin eta futbolearekin lotutako alderdiak biltzen dituen modalitatea da, eta hiru kirol horietan jokatzeko praktika egokia da.

JATORRIA:

Artzikirolaren sortzailea José Ramón Rey (Artziniega, 1963) aiararra dugu. Joko hau, beraz, Aiarako lurraldeetan jaio zen 2007an; hain zuzen ere, Artziniega herrian (hortik dator izena). José Ramón Rey ogibidez harakina bada ere, kirolarekin oso harreman estua izan du betidanik. Karatean, frontenisean, areto futbolean eta atletismoan ibilitakoa da, besteak beste; entrenatzaile lanetan jardun du aiarar honek, ahalik eta gazte gehienaren parte-hartzea sustatuz.

Azken urteotan, joko honen oihartzuna nabaria izan da Bizkaiko zein Arabako herri eta hiri askotan, eta hainbat ikastetxetako eta udaletxetako kirol jardueretan tokia hartu du.

Hona hemen joko honetan aritzeko behar ditugun oinarritzko baldintzaak eta arautegia:

JOKALEKUAREN BALDINTZAK:

- Areto futboleko edo areto eskubaloiko zelai batean jokatzeko da; 40x20 edo 36x18 metroko zelai batean, hain zuzen ere.
- Beste osagai hauek ere baditu jokalekuak:
 - Erdiko marra, zelaia erdibitzen duena.
 - Bi ate, 3x2 metrokoak
 - Penalti puntua: 7 metrora
 - 6 metroko area
- 15 minutuko 4 zatik osatzen dute partida bat. Lehenengo eta bigarren zatien eta hirugarren eta laugarren zatien arteko atsedena 2 minutukoa da; bigarren eta hirugarren zatien arteko atsedena, berriz, 5 minutukoa.
- Goma aparrezko baloi berezi batekin edo infantil mailako boleibol baloi batekin joki daiteke.


ARAUAK:

- Baloia eskuaz zein oinaz eraman daiteke. Baloia eskuan daramazunean arerioak harrapa zaitzake, eta falta adieraziko du epaileak; horregatik, arerioak ukitu baino lehen baloia oinetara eraman behar da, golera jaurti, edo lagun bati pasatu. Jaurtiketak eskuaz zein oinaz egin daitezke.
- Talde bakoitzak 6 jokalariz izango ditu lehiak, atezaina barne. Hala ere, talde bakoitzak osora 15 jokalariz izango ditu jokatzeko.
- Gola lortzeko baloia jaurti (eskuaz edo hankaz) edo "palmeatu" daiteke.
- Hala ere, area barruan atezainari eror dakioket baloia lurrera, eta berriro berreskura dezake eskuaz, taldekideekin jokatu ahal izateko. Areatik kanpo, ordea, gainerako jokalariek bezala, ezin izango du hori egin.

Arau-haustekak:

- Indarra erabiltzea, aurkariari heltzeko edo bultzatzeko, edota hura jotzeko edo zango-trabatzeko. Era berean, ezin da indarra erabili baloia eramateko.
- Jokalari berak baloia esku batetik bestera pasatzea.
- Jotzeak falta dakar.


Gure esperientzia sentsazio onekoa izan da, dibertigarria suertatu zaigu, eta taldeko kirol berri batekin egin dugu topo.



Kontzeptualizazioa lantzen argazkien bidez

DBH3ko Plastika eta Ikusizkoen Hezkuntza arloan interpretazioa eta kontzeptualizazioa lantzen ibili gara. Horretarako, Chema Madoz artista madrildarra hartu dugu ardatz; haren lanak ezagutu, interpretatu eta haietatik abiatuta ideiak edo kontzeptuak argazki bidez nola komunikatu lantzen aritu gara.

Lanketa honetan interesgarriena argazki kontzeptualen interpretazioek pentsamenduan noraino eraman gaitzaketen ezagutzea izan da. Izan ere, ideia edo hausnarketak forma ez literalean adieraztean, hainbat elementurekin jolasean ibili gara eta irudiaren estetika ere zaintzen ikasi dugu. Hori guztia eginez, guretzat berria den mundua deskubritu dugu: argazki kontzeptualarena. Madozen lanak geure egin eta geureak sortzen lanean, hausnarketari eta sormenari aukera askeak eskaini dizkiogu eta proiektu ederrak sortu ditugu.



Walikale Webquest: “Zure mugikorrak ezkutatzen duena” lehiaketa

Azaroaren 17an, ALBOAN Gobernu Kanpoko Erakundeak WALIKALE WEBQUEST erronka eraman zuen aurrera Deustuko Unibertsitateko Donostiako Campusean. WALIKALE WEBQUEST errealitate areagotua erabiltzen duen gazte taldeen arteko lehiaketa bat da. Helburua da proba batzuk ebatzea ahalik eta denbora gutxien erabilita, sakelako telefonoak erabiliz. IKTak eta mugikortasuna konbinatzen dituen ginkana bat da, modu ludiko eta dibertigarri batean planteatzen dena.

“Zure mugikorrak ezkutatzen duena asma ezazu!” lelopean, jokoaren helburua ALBOANen “Gatazkarik Gabeko Teknologia” kanpaina ezagutaraztea da, Kongoko Errepublika Demokratikoan gertatzen ari diren giza eskubideen urraketak salatuz, hori guztia gure gailu teknologikoen kontsumoarekin lotuz (sakelako telefonoak, tabletak, ordenagailuak...).

EKI Social Sciences-eko 3. unitateko proiektuaren “WHAT YOUR MOBILE HIDES” (zure mugikorrak ezkutatzen duena) lelopean, DBH3ko ikasleek beren ekarpena egingo diote goian aipatutako kanpainari. Helburua da Kongoko biztanleriari laguntzeko ahalik eta mugikor gehien biltzea, birziklatzeko; izan ere, mugikorrak egiteko erabiltzen diren hainbat material oso garesti eta eskasak dira eta askotan Kongoko eta antzeko beste herrialde batzuetako meatzeetatik lortzen dira. Egitasmo hau ikasturte bukaera aldera jarriko dute martxan.

Hori dela eta, DBH3ko ikasleak Walikale Webquest lehiaketan parte hartzera animatu genituen, eta 12 ikasle hartu zuten parte, hiru taldetan banatuta. Ez zuten saririk irabazi (gutxigatik, Haurtzaroko talde bat 17 talderen artean laugarren gelditu baitzen), baina gaiari buruz zerbait ikasi zuten, eta, gainera, primeran pasatu zuten!





DBH 4

Bidasoako jaitsiera 2018

Beste mailetan geundenean zeharka begiratzen genion irteera honi, noiz helduko ote zen zain. Iritsi zaigu azkenean!


Urriaren hasierako hego haizearen baimenarekin, goiz-goizean autobusa hartu, eta Irungo Santiagotarrak elkartera iritsi ginen zortzi eta erdietarako. Bertan, ibaia jaisteko beharrezkoa zen ia guztia eman ziguten, ia guztia diogu, gogoa geuk etxetik eraman baikenuen. Txalekoa, kaskoa, palak, piraguak... kargatu, eta Endarlatsara abiatu ginen jaitsiera bertatik hasteko asmoz. Santiagotarrakeko piraguisten aholkuak entzun ondoren, binakako eta banakako piraguan sartu, eta Bidasoako ur freskotan sartu ginen, korrontea lagun (batzuetan etsai), ibaian behera murgilduz.

Hasierako zailtasunak eta korronte azkarrak gaindituz, San Miguel izeneko gunean bainu bat hartzeko aukera aprobetxatu ondoren, arraunean Pausu aldera hurbildu ginen eta Lapurdik Gipuzkoarekin muga egiten duen zubia pasatu genuen azpitik abaila bizian.

Gorputz Hezkuntzan iraupena lantzen ari garen honetan, 3 ordu pasatxoko ekintza honetan iraun eta gozatu genuela esan daiteke. Endarlatsako natura ospeletik Irungo hirigune eguzkitsura bidaiatu genuen geure gorputzen energiaz eta piraguen laguntzaz, noski.

Ederki pasatu genuen eta aurrerantzean zeharka begiratuko diogu Endarlatsatik Santiagotarrakeko ibilbideari, bertatik pasatzen garen bakoitzean.

DBH4ko ikasleak



DBH 4

Geure burua maite dugu

DBH4n, Frantsesa irakasgaiko ikasleok proiektu bat egiten aritu gara; hainbat arropa pertsonalizatzea zen gure helburua. Zer egin pentsatzen hasteak beste gauza garrantzitsuago batzuk ekarri dizkigu gogora. Zugan pentsatu dugu; zuk jarritako mugetan, eta zuk ezarritako kateak haustea lortu dugu!

Argala, ezpain lodikoa, begi handiak, depilatua, ile luzekoa, altua, azal leunekoa, ipurdi “perfektua” duena, bularralde oparoduna, azal zurikoa, gorputz liraina (60 - 90 - 60)... amaierarik gabeko arrosarioa. Horrela, zerrenda luze bat eginez jarrai genezake mugarik gabe, zuk, gizarteak, inposatutako estereotipoak aipatuz.

Zer da perfekzioa? Zer da gorputz perfektu bat? Zer zenuen buruan arau hauek jartzerakoan? Helburu batekin egin al zenuen? Izorratzeko izan al zen? Edo zirikatzeke? Agian bazterrak nahasteko izan zen.

Ez dakigu. Baina jakin ezazu dagoeneko zure arauak ez ditugula kontuan hartuko; ez zaizkigu axola, ez gaituzu berriro minduko zure komentarioekin; ez diguzu esango nola jantzi, nora joan edo zergatik; guk erabakiko dugu zer egin gure gorputzarekin, geurea delako, eta geurea baino ez. Orain arte geure burua maitatzen utzi ez badiguzu ere, gaur lortuko dugu, garen bezalakoak izango gara nahi dugulako, eta geure burua maitatzen dugulako!

Beraz, gizarte maitea, ez saiatu gu mintzen, gu zirikatzen, gu izorratzen... ez saiatu, ez duzu lortuko eta. Ezingo gaituzu berriz zure kateez inguratu, garen bezalakoak garelako, GEURE BURUA MAITE DUGULAKO!



Lohizune Telletxea Delgado
Izaro Altuna Ibarguren
Udane Ibarguen Karrera



Eskolaz kanpokoak

2018-2019 ikasturte berria gogotsu hasi dugu aurten ere eta dagoeneko martxan ditugu eskolaz kanpoko ekintza guztiak. Aurten 13 kultura zein kirol jarduera eskaini ditugu eta haietan 509 ikasle ditugu Haur Hezkuntzan hasi (4 urterekin) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara arte. Hona hemen eskaintzen diren ekintzak:

SORGIN ETA AZTIEN ELTZEA	HH2tik LH1era
EUSKAL DANTZA	LH1etik DBH4ra
ESKULANAK	LH1etik LH6ra
DANTZA GARAIKIDEA	LH1etik DBH4ra
ANTZERKIA	LH2tik LH6ra
BERTSOLARITZA	LH5etik DBH4ra
DANTZA TXAPELKETAK	LH3tik DBH4ra
XAKEA	LH1etik LH6ra
MUSIKA TAILERRA	HH2tik HH3ra
ABESBATZA	LH1etik LH6ra
ESKOLA KIROLA	LH3tik LH6ra
ATLETISMOA	LH3tik DBH4ra
PSIKOMOTRIZITATEA	HH2tik HH3ra


Ekintza horiez gain, beste ekintza batzuk ere eskaintzen dira; gitarra, trikitixa, panderoa, robotika eta mekanografia.

Azken ikasturteetan, eskola kirolean, talde mistoak eta parekidetasuna pil-pilean egon diren gaiak izan dira, baina aldaketa bat-batean egitea ez da lan erraza. **SORGIN ETA AZTIEN ELTZEA** proiektua bide horren hasierako proiektua da. Mugimendua, koordinazioa, erritmoa, oreka, motrizitatea... ere landuz, genero aldetik talde bereizketarik gabea. Ekintzak izugarritzko arrakasta eduki du 4 urtetik hasi eta LH1era arteko neska-mutilen artean. **6 talde** ditugu ikastolan HH2tik hasi eta LH1era bitartean; guztira **74 neska-mutil**; eta **haien esanetan oso gustura** aritzen dira saio horietan.

Ekintza honen izena aukeratzea ez da lan erraza izan; genero aldetik neutroa izatea, jarduera fisikoa jolasaren bidez bermatzea eta musika eta dantza denon gozagarri dela ikusarazteaz gain, haurraren garapena eta helduek prozesua bateratuko zituen izena behar baikenuen. Lan horretan, ikastolako guraso den Jon Martinek lagundu zigun. Eskerrik asko, Jon!

Talde bakoitzak bi hezitzaile ditu, eta, ekintza hau asteen bi egunetan egiten denez, talde bakoitzak egun bakoitzean hezitzaile bat edukitzen du. Hezitzaile lanetan Gorka Irigoien, Maialen Ibargoin, Amaia Ostolaiz, Sara Dorronsoro eta Gema Ines ibiltzen dira. Haur Hezkuntzakoak Gorkarekin eta Lehen Hezkuntzakoak Sararekin daudenean, jarduera fisikoa, jolas librea, jolas sinbolikoa... lantzen dituzte. Aldiz, Haur Hezkuntzakoak Maialen edota Amaiarekin eta Lehen Hezkuntzakoak Gemarekin daudenean, erritmoa, dantza, koordinazioa, oreka... lantzen dituzte.

Mugimenduz gain, hezitzaileek sentimenduak lantzea garrantzitsua dela uste dute, askotan ikasleek ez baitakite sentitzen dutena adierazten. Horretarako, sentimenduen txokoa sortu dute. Ikasleak saioan zehar nahi dutenean joan daitezke txoko horretara eta, bertan, sentimendu ezberdinak dituzten txartelak aukeratu eta sentitzen dutena adierazten dute. Modu honetara, ikasleek beren burua ezagutzen eta sentitzen dutena hitzez adierazten ikasten dute.



Adinaren arabera, interesak eta gaitasunak aldatuz doaz, eta Sorgin eta Aztien Eltzeko saioetan hori ere kontuan hartzen saiatzen dira; hau da, ikasleen adin edota gaitasunen arabera jarduera ezberdinak egiten dira edota moldatu egiten dira, betiere, haurren beharretara egokituz. Hezitzaileen esanetan, ikasleak Sorgin eta Aztien Eltzeko saioetara gogotsu eta ilusioz joaten dira, baina egia da batzuek jolas mugituetarako gogo gehiago izaten dutela eta beste batzuek, aldiz, lasai egon nahi izaten dutela. Horrez gain, ikasleen interesak kontuan hartzen dira saioak prestatzerako orduan. Beraz, gauza berak landu arren, talde bakoitzarekin modu ezberdinetara egiten da lan.

Ekintza horiez gain, Haur Hezkuntzako ikasleek ikastolatik kanpo mugimendua eta adierazpena lan ditzaten, ekintza berri bat daukagu, **PSIKOMOTRIZITATEA**. Saio horietan, Bernard Acouturier pedagogo frantsesaren metodologiari jarraituz, umeen garapen fisiko eta intelektualak sustatzen da. Horretarako, haurren gorputza eta jolas autonomoa oinarritzat hartuz, umearen nortasuna, adierazpena, komunikazioa, sormena... lantzen dira.

Hezitzaile lanetan, ikastolako guraso eta psikomotrizista den Maru Rivas aritzen da eta oso gustura dago sortu duten taldearekin. Haren esanetan, ikasleak borondatez apuntatu dira ekintzara, eta hori asko nabaritzen da saioetan, astero gogo biziz eta irrikaz joaten baitira haietara.

Saioek lau zati edukitzen dituzte. Lehenengoan, sarrera erritualean, saioaren nondik norakoak eta arauak gogorarazten dituzte. Maruren hitzetan, ikasleak hitz egiteko gogoz joaten dira eta zati honetan oso gustura aritzen dira. Gero, jolasaren unea dator, ume bakoitzak bere interes eta abilezien arabera jolas ezberdina aukeratzen du eta hezitzailea laguntzen edo begira aritzen da tarte horretan. Hurrengo zatian, adierazpena lantzen da eta, saioaren arabera, marrazki, egur, ipuin... bidez ikasleek zerbait sortu edota adierazten dute. Azkenik, irteera erritualean, saioan gertatutakoari hitza jartzen diote.

Bukatzeko eskerrak ematea besterik ez da geratzen, ikasturtez ikasturte eskolaz kanpoko ekintzetan lanean ari diren hezitzaileei eta ikasleei. Proiektu berriak martxan jartzeak aisialdian aukera zabala eta interesgarria egotea bermatzen du.

Beraz, gure ikasleen aisialdiko heziketaren alde lanean jarraituko dugu.

IKASTURTE ONA IZAN ETA GOZATU!





Euskaraldia

Hautzaro Ikastolak euskararekin duen konpromisoa berretsi du Euskaraldia kanpainarekin, beste behin ere. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra egin zen ekintza sozialean hainbat familiak hartu zuten parte **belarriprest** edo **ahobizi** rolak hartuta. Euskaraldia kanpaina 16 urtetik gorakoentzat izan arren, Ikastolako ikasleek egin zuten gurasoengana iristeko zubi-lana, mezuak etxeetan zabalduz eta ariketa sozial honetan etxeokak parte hartzerantz animatuz.

Oiartzunen euskara ulertzen duen jendea pentsatzen duguna baino gehiago dela jabearaztea eta euskara gehiagotan erabil dezakegula ikusaraztea zen herriko kanpainaren helburua, hizkuntza ohiturak euskararantz irauliz. Euskaraz aritzea ez baita gaitasun kontua soilik; jarrerak eta jokabideak badu zerikusi handia. Horretarako, gure harremanetan hizkuntzarekin ditugun inertzia astindu, eta uste baino gehiagotan euskarazko komunikazioa posible dela frogatu dugu guztiok Oiartzunen.

Herri mailan hainbat ekintza antolatu ziren; besteak beste, formakuntza saioak edota abenduaren 1eko flashmob-a. Haietan guztietan Ikastola presente egon zen, eta bere egin zuen Euskaraldiaren funtsa, hizkuntza ohiturak aldatzea ez baita norbanakoaren hautua bakarrik eta eraginkorragoa baita taldean egitea.

Eskuttun erabat inplikatu zen kanpaina, Euskaraldiaren aurretik girotze-lan handia egin zuten ikasleek, **ahobizi** eta **belarriprest** rolak hartzea baino, kontzientziazio eta motibazio lana egitea izan baitzen haiena; batetik, ikastolako girotze-lanari ekin zioten, Euskaraldiak hain esanguratsu bihurtu zituen **puntu**etan irudikatu zituztelako erabilerarako gako nagusiak. Bestalde, azaroaren 30eko Ikastolako Euskararen Eguneko ekitaldian **euskararen bidaia**rekin eta **Argitxoren urtebetetze ospakizuna**rekin batera, hezkuntza komunitate osoa eragin zuten, gurean hain ohikoak diren euskararen aldeko konpromisoak hartzerantz gonbidatuz; lehenengo, norbanakoari dagokionak eta, ondoren, taldearenak.




Top@DIPC: Zientziarekin Solasean

Top@DIPC-Zientziarekin Solasean jardunaldiaren X. edizioa antolatu zuen Donostia International Physics Center-ek pasa den urriaren 30ean, eta bertara gerturatu ginen DBH4ko Ane Elizasu, Lohizune Teletxea, Irati Barron eta Udane Ibarguen ikasleekin, zientzia munduko ikerlari ospetsuen eta Nobel sari-dunen presentziaz gozatzeko.

Jardunaldi honen xedea ikasleen artean ikasketa zientifikoekiko grina piztea da. Horretarako, aurtengo edizioan Klaus Von Klitzing (Fisikako Nobel sariduna 1985ean), Mairi Sakellariadou (uhin grabitazionalen ikertzailea) eta Maria Vallet-Regí (2018ko Jaime I.a Erregea Saria Oinarritzko Ikerketan) zientzialariak gonbidatu ziren.

Urtero lege, ikasleak aurretik prestatutako galderekin eta ilusio handiz aurkeztu ziren Eureka! Zientzia Museoan euren jakin mina asetzeko asmoz. Solasaldi zientifikoak gidatu zuten protagonista izan ziren ikasleek egindako galdera bibliografiko nahiz zientifikoek, eta gonbidatuek eurek bizitako esperientzia profesionala gerturatu zieten giro paregabea.





Erronka 2018

Aurten Kilometroak Zumarraga-Urretxun izan dira, baita Erronka ere. Bertan, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako ikastoletako DBH3ko eta 4ko ikasleok hartu dugu parte.

Bi fasetan dago banatuta Erronka, eta, ondoren, finala dator. Finalaren barruan, beste hiru fase daude. Lehenengo fasean, lehendabiziko tokian gelditu ginen. Bigarrenean, apur bat okerrago ibili ginen, baina finalera abantaila handiarekin igaro ginen lehendabiziko 8 ikastolen artean. Finaleko lehenengo fasean oso ongi aritu ginen, baina epaileen "hanka-sartze" batengatik ez ginen bigarren fasera pasatu. Askok kexatu ondoren, epaileek onartu zuten haien hanka-sartzea izan zela, baina, jada erabakia hartuta zegoenez, kanpoan geldituko ginela esan ziguten. Ez zen batere joko garbia izan eta nahiko haserre bueltatu ginen etxera.

Nahiz eta bukaeran oso gustura ez gelditu, oso ongi pasatu genuen, esperientzia oso polita izan zen eta jende asko etorri zen gu animatzera: lagunak, senideak... han zeuden gu animatzeko. Gustura egon ginen, talde lan oso ona izan zen, elkar animatzen denbora guztian.

Eskerrak eman nahi dizkiegu bideo lehiaketan bozka eman duzuen guztiei, nahiz eta saririk ez lortu, esfortzuak merezi izan zuelako eta, horrez gain, eskerrak eman eguraldi txar horrekin animatzera etorri ziren guztiei. Leire, Maitane eta Iñakiri ere eskerrak eman nahi dizkiegu lagundu diguten guztiagatik.

Nahiz eta aurten ez irabazi, hurrengo urteetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, oso esperientzia polita delako eta hurrengo urtean aurten etxera ekarri ezin izan dugun bandera ekarriko duzuelako.

Ikasturte berriari leihoak

Oiartzo Batxilergo Ikastola 1998an Orereta Ikastolaren eta Haurtzaro Ikastolaren artean sortutako fundazioa da eta, sortu zenetik, Oreretako Zabalbide auzoan dago kokatuta. 20 urteren ondoren, iritsi zaio eraikinari berritzeko premia, eta Ikastolak erronka berri bati aurre egin dio 2017-2018 ikasturtearen bukaeran eta 2018-2019 ikasturtearen hasieran. 2018ko ekainean, ikasturtea bukatu bezain pronto, eraikina berritzeari ekin zitzaion. Buru-belarri lanean, eraikinean berrikuntza handiak egin dira. Kanpoaldeko balkoiak berritu dira, beharrezkoa zen isolamendua jarri; ikastetxearen leiho guztiak ere aldatu dira, eraikina energetikoki jasangarriagoa izan dadin. Barrualdetik, berriz, ikasgela eta mintegi guztietako hormak margotu dira, eraikina koloreztatuz. Azkenik, ikasleen beharrei aurrea hartuz, korridoreetan armairuak jarri dira, ikasle bakoitzak haietako bat erabiltzeko aukera izan dezan, ordenagailua edo ikasmateriala gordetzeko. Eraikin berrituan, gogoz hasi gara lanean, betiko helburuei jarraikiz, batxilergo euskalduna, kalitatezkoa eta eskaintza zabalekoa eskaintzen.



Zorionak idazle gazteei!

LH3tik DBH4 bitarteko ikasle guztiek urtero hartzen dute parte Oartzungo Udalak antolatzen duen prosa eta poesia lehiaketan. Ikasleak irudimena lantzen eta nortasuna garatzen ari diren garaia izanik, oso esanguratsua da ikasleek idazketa pertsonalizatzeko egiten duten lana. Bide horretan, garrantzitsua da ikasgelatik atera eta gure ikasleek euren lanak era honetako lehiaketetara aurkeztea.

Prosa eta poesia lehiaketa euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko ekimena ere bada, eta zentzu horretan ere Hautzaro Ikastolak bere ekarpena egiten du.

Zorionak, bada, saria jaso duzuen ikasleei, baita parte hartu duzuen ikasle guztiei ere egindako lan bikainagatik!

MAILA	PROSA	LANAREN IZENA	EGILEA
LH3	1. SAILA		
	. SARIA	Ate misteriotsua	Aiara Inciarte Cintero
	. SARIA	Basoko Sekretua	Mireia Sagarra Martin
LH4	2. SAILA		
	. SARIA	Pegaso baten istorioa	June Escano Urdanpilleta
	. SARIA	Sahara ez zait gustatzen	Maddi Mitxelena Iriondo
LH5-6	3. SAILA		
	. SARIA	Espazioko zulo koloretsua	Lorea Kortajarena Mugika
DBH 1-2	4. SAILA		
	. SARIA	Izarrei begira	Ekhi Astibia Getaria
	. SARIA	Amesgaiztoko bidaia	Lur Lopez Fraile
DBH 3-4	5. SAILA		
	. SARIA	Itsas arima	Udane Ibarguen Karrera
16-18	6. SAILA		
	. SARIA	Itsaso hari begira	Josu Ibarguren Elozegi
	. SARIA	Bular bat, mesedez	Lur Gaztelumendi Beristain
MAILA	POESIA	LANAREN IZENA	EGILEA
LH5-6	3. SAILA		
	. SARIA	Nor Naiz?	Araitz Irastorza Urruzola
DBH1-2	4. SAILA		
	. SARIA	Itzala	Lur Lopez Fraile
	. SARIA	Iraganeko Argazkia	Ane Garmendia Irastorza
DBH3-4	5. SAILA		
	. SARIA	Ezindua	Amaiur Aranburu Gorrotxategi
16-18	6. SAILA		
	. SARIA	Bakarra	Malen Elizasu Manterola



Egin dugu

*Asko gozatu jasotako opariez eta datorren
urtean berriz ere elkar ikusiko dugu*



Artaluz Barriola

Hazia heziz, loratu

 Haurtzaro
Ikastola
bizitzarako hezkuntza



Informa zaitez gure webgunean No dudes en consultar nuestra web

www.haurtzaroikastola.eus

